

# **KOSTU EGITURA**

Funtsezkoa da kostuen egitura arretaz aztertzea, negozioa aurrera ateratzeko zenbat diru behar den jakin baitezakegu. Enpresaren errentagarritasuna eta bideragarritasun ekonomikoa ebaluatzen ere laguntzen du.

## **Kostu motak**

Canvas ereduaren egituren hainbat kostu mota daude:

- Kostu finkoak

Ekoizpena handitu arren aldatzen ez direnak dira, ez baitute produktuarekin edo zerbitzuarekin erlazio proportzionalik. Kostu finkoak definitzeko beste modu bat da beti diru kopuru bera ordainduko dela, enpresaren funtzionamendua kontuan hartu gabe. Gure kostu finkoen artean gure lokalaren alokairua, hilero ordaindu behar dugun maileguaren zatia, soldatak edota wifi sistemaren kostua daude.



- Kostu aldakorak

Ekoizpen-bolumenarekin proportzioan handitzen dira. Lehengaien kostua izan daiteke, merchandising edota ura eta argiaren fakturak

## **Lean Canvas kostuen egitura**

- Zuzeneko kostuak

Ezinbestekoak dira produktua edo zerbitzua sortzeko. Hemen sartzen dira eskulana eta lehengaiak.

- Zeharkako kostuak

Ez dute lotura zuzenik balio-proposamenarekin. Adibidetzat har ditzakegu lokalean erabili behar den argiaren kostua, urarena...Hauek gure zerbitzuarekin ez dute lotura zuzenik. Hala ere, ordaindu behar ditugu gure jardueraren funtzionamendu egokirako.

## Kostua lehenengo hilabetean

Ondasuna	Prezioa	Kantitatea	Iturria	Guztira
Lokala- alokairua	1500€	-	<a href="#">Idealista</a>	1500€
Ordenagailuak	1000€	10	<a href="#">Asus</a>	10.000€
Wifi	50€	-	<a href="#">Euskaltel</a>	50€
Soldatak	1500€	3	-	4500€
Mahaiak	31€	10	<a href="#">Amazon</a>	310€
Gaming aulkiak	100€	10	<a href="#">Amazon</a>	1000€
Aulki normalak	20€	16	<a href="#">Ikea</a>	320€
Fakturak(ura, argia)	500€	-	<a href="#">Iberdrola</a>	500€
Zergak	900€	-	-	900€
Aduanak	300€	-	<a href="#">Instituto Superior de Procedimientos Aduaneros</a>	300€
Mailegua	254,44€	-	<a href="#">Mailegua</a>	254,44€
Securitas Direct alarma	792€	-	<a href="#">Securitas Direct</a>	792€
Komertzio asegurua	300€	-	<a href="#">AXA</a>	300€
Generoa(figurit ak, kamistek...)	2500€		<a href="#">Ocio Stock</a>	2500€
		<b>Guztira</b>		<b>23.226€</b>

## Kostua hurrengo hilabetetan

<b>Ondasuna</b>	<b>Prezioa</b>	<b>Kantitatea</b>	<b>Guztira</b>
Lokala-alokairua	1500€	-	1500€
Wifi	50€	-	50€
Soldatak	1500€	3	4500€
Fakturak(ura, argia)	500€	-	500€
Zergak	900€	-	900€
Aduanak	300€	-	300€
Generoa(figuritik, kamistek...)	2500€		2500€
Mailegua	254,44€	-	254,44€
		<b>Guztira</b>	<b>10.504€</b>